

AHOLKULARITZA JURIDIKOA

Gasteizko Udalak gazteen ohiko galderen erantzunak bildu eta argitaratu ditu

 **JENDARTEA** / Ion Salgado

Gasteizko Udaleko Gazteentzako Lege Aholkularitza zerbitzuak bertan jaso ohi dituen galderen erantzunekin zerrenda bat argitaratu du formatu digitalean. Zerrendan lan-kontratuei, alokairu hitzarmenei edota isunei buruzko informazioa topa daiteke. Hamabost galderek osatzen dute Udalaren webgunean eskuragarri dagoen zerrenda.

Askok ez dute ezagutzen Gasteizko Udalaren Gazteentzako Lege Aholkularitza. Ez dakite zer den. Ez dakite doakoa dela eta pertsonalizatutako arreta eskaintzen duela. Ez

dakite non dagoen, ezta zein den bere ordutegia ere. Egoerari aurre egiteko, Gasteizko Udalak gazteek gehien egiten dituzten galderak batu eta zalantzak argitzeko helburua duen zerrenda bat argiratu du bere webgunean ohiko galderen formatuan (FAQ). «Gaz-

teentzako tresna erabilgarria eta irisgarria izateko asmoz egin da. Gazteek galdetegira jo dezakete lege-gaiei buruzko informazio bila, eta antzeko kasuen erantzun juridikoen adibideak erabili», nabarmen-tzen du Gasteizko Udalak zabal-dutako oharra.

«Aholkularitza honek gazte-ek eskubideen ezaguera ego-kia izatea du helburu, hiriko gazteei eskubideei, betebeha-rrei eta izapide legalei buruz-ko informazioa, aholkua eta orientabidea eskaintzen die, eta gazteentzako kalitateko enplegua bultzatzen du esku-bide sozioekonomikoen eza-gueraren bidez», gaineratzen du Udal Gobernuak.

Hala, argitaratu berri diren erantzunei esker, gazteek argi-

Gasteizko Udalaren zerbitzua doakoa da eta 16 eta 35 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago. Juanan RUIZ | FOKU



tu ditzakete, esaterako, lan-kontratuarekin zerikusia duten zalantzak. Zerrendan agertzen den lehenengo galderak hala dio: «Lan egiten dudan enpresak legearen arabera ordaintzen ote didan jakin nahiko nuke. Gainera, aparteko orduei buruzko eta gaueko lanaldiari buruzko informazioa ere jaso nahiko nuke».

Erantzunean azaltzen denez, zalantza horri erantzuteko «beharrezkoa da jakitea enpresan zer postutan egiten duzun lan, Hitzarmenaren arabera zer kategoria dagokizun argitzeko. Akordio horretan irabazi behar duzun soldata zehazten da. Dena den, eskatzen baduzu, enpresak derrigor eman behar dizu Hitzarmena, paperean zein formatu elektronikoa».

«Horrez gain, Hitzarmen Kolektiboak gauez lan egiteagatik plusak, bidaiatzeagatik plusak eta aparteko orduak nola ordaindu behar dituzten zehaztu behar du», gaineratzen du erantzunak, eta ohartarazpen bat nabarmendu: «Jasotzen duzun soldata Hitzarmenean agertzen den itundutako saria baino txikiagoa bada, enpresa salatu ahal izango duzu Lan Ikuskaritzan, eta enpresa auzitara eraman, ordaindu ez dizuten aldea gehi interesak eskatuz».

ERANTZUN ZEHATZAK

Lehendabiziko erantzuna zerrendan agertzen den luzeena da. Eta nahiko generikoa da. Izan ere, erantzun zehatza emateko zenbait gauzak ikertu behar dira: «zure lanpostua zein den, zure jarduera zehatza zein den, eta zer ordutegi eta kontratu mota dituzun». Orokortasun horiek ez dira ematen hurrengo galderetan. Argi azaltzen da gazteek 20



Aholkularitza juridikoa eskaintzen die Gasteizko Udalak gazteei. Raul BOGAJO | FOKU

egun balioduneko epea dutela errekurso bat aurkezteko lanetik egozten badituzte.

Lan munduarekin zerikusia duten zalantzak argitu ondoren, ohiko galderetan familiekin lotura dutenak agertzen dira. Bloke horren lehenengo galdera seme-alaben abizenen lehentasunezko ordenari buruzkoa da. Zer gertatzen da abizenen lehentasunezko ordenarekin gurasoen artean adostasunik egon ezean? Nork zehazten du aipatutako ordena?

Aholkularitza juridikoaren erantzunak horrela dio: «Seme-alaben abizenen lehentasunezko ordenari buruz gurasoen adostasunik ez badago, eta hiru eguneko gehieneko epea igarota, Erregistro Zibilarren arduradunak aipatutako ordena ezarriko du adingabearen goiko interesa kontuan hartuta. Eragina izan ahal duten faktorean dira: alfabetoaren arabeko ordena, edo adingabearen izenarekin hobeto jotzen duen abizena».

Ohiko galderen artean ere agertzen da aitatasunarekin zerikusia duena. Hala dio: «Lagun batekin erlazioak izan nituen eta orain aitatasun-kean auzitara eraman nau, seme-alabaren aita naizela diolako, eta proba biologikoak egin ditzadala eskatzen dit. Analisiak egin behar ditut? Egin nahi ez baditut ondorioak zeintzuk dira?».

Erantzunean azaltzen den bezala, «aitatasunaren proba biologiko erabakigarriak egiteari uko egitea ezin da ustezko aitormentzat hartu. Hala ere, zantzu adierazgarritzat jo daiteke eta epaileak haztatu behar du prozeduran dagoen probari dagokionez. Zentzu horretan, Epaitze Zibileko Legeak aipatzen du aitatasuna



eta amatasuna egozte baimentzen dela, betiere zantzu batzuk badaude».

«Proba biologikoak erreklamatzeko zaizkion pertsonak arrazoirik gabe proba biologikoa egiteari uko egiten badio, eta aitatasun edo amatasun hori frogatzeko beste zantzu batzuek badaude, aipatutako zantzuak Auzitegiari eskatutako aitatasuna aitortzea baimentzen diote. Hala ere, beste zantzurik ez badago, aipatutako proba praktikoari uko egiteak ez du besterik gabe aitatasun edo amatasun izatearen ustezko aitormena ekartzen», gaineratzen du Aholkularitza Juridikoak.

Halaber, izatezko bikote izateari uzteko zer egin behar den azaltzen da erantzunetan. «Izatezko bikote bezala osaketa adierazpenaren izen-emaitea indargabetu behar duzu. Indargabetzeko eskaera baten bidez egin behar duzu Euskal

Autonomia Erkidegoko izatezko bikoteen erregistroan. Han aurkeztu behar duzue aipatutako indargabetzeko borondatea adieraztera. Batera joango zarete akordioa baldin badago, edo banaka horrela ez baldin bada».

ALOKAIRUA

Etxebizitzari buruzko galderak ere badaude zerrendan. Alokairuari dagokionez, lehenengo galdera fidantzari buruzkoa da. Errentatzaileak alokairuaren fidantzaren zenbatekotik deskonta dezakeenari buruz, zehazki. «Errentatzaileak hila-bete bat edukiko du fidantza zuri itzultzeko, baina itzuli aurretik fidantzatik kantitate batzuk kendu ahalko ditu», nabarmentzen da erantzunetan.

Fidantzatik kontzeptu hauek deskontatu ahalko ditu: ordaindu gabeko alokairuak, adosturiko denbora baino lehen etxebizitza uztegitik itun-

gutako kalte-ordaina, ordaindu gabeko hornikuntzak –ura, argia, gasa...–, eta etxebizitzan dauden kalteak. Dena den, «ezin izango dizute inola ere fidantzatik ezer deskontatu alokairu berri baterako etxebizitzaren garbiketa eta saneamendua» ordaintzeko.

Beste erantzun batean pisu bat alokatzeko sinatu behar den kontratuari buruzko informazioa agertzen da. «Idatzitako kontratua aholkatzen da, Hirigintzako Errentamendu Legeak baimentzen dituen

Aholkularitza zerbitzura joan aurretik, Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoan eskatu behar da hitzordua. Bulegoa Gasteizko udaletxean bertan dago.
Juanan RUIZ | FOKU

Gasteizko Landatxo Gizarte Etxean du egoitza Gazteentzako Lege Aholkularitzak, hiriko Alde Zaharrean, eta ostegunetan eta ostiraletan irekita egoten da, 18:00etatik 20:30era

«Gazteek galdetegira jo dezakete lege-gaiei buruzko informazio bila, eta antzeko kasuen erantzun juridikoen adibideak erabili», nabarmentzen du Gasteizko Udalak

klausulak itunduz. Ahozko kontratua ere baliozkoa da, baina bere existentzia frogatu behar da. Horretarako, edozein errentamendu-kontratutan errentaren ordainketa frogatu ahal izatea funtsezko elementua da».

Epeei dagokionez, erantzunetan argi azaltzen da errentamendu-kontratu berriei esker, errentaria, «egoera normal batean», etxebizitzan gehienez hiru urte egon ahal izango dela. Eta, «errentamendu-kontratuan aurkakoa ez bada esaten», gelak alokatu ahal dira beste pertsona batzuei. «Baina ia kontratu guztietan etxebizitza berralokatzeko debekatuta dago, bai osorik, baita zatika ere, eta hori ez betetzea kalartze-kausa izan daiteke».

Azken galderak negozio bat abian jartzeko egin behar diren tramiteei eta trafiko-isunei buruzkoak dira. Negozio bat abiatzeari dagokionez, Gazteentzako Lege Aholkularitzak egin beharreko tramite guztiak Udalaren webgunean ageri direla ohartarazten du, eta, trafiko-isunei dagokionez, errekurtso bat jartzeko abokatuak beharrezkoak ez direla nabarmentzen du, «Auzitegi-tara iritsi arte abokatua eramatea nahitaezkoa ez delako».

Erreportaje honetan jasotako argibideek dituzuen zantzak argitzen ez badituzte, aurrez aurreko hitzordua eska dezakezue Gazteentzako Lege Aholkularitzako langileekin. Gasteizko Landatxo Gizarte Etxean dute egoitza, hiriko Alde Zaharrean, eta ostegunetan eta ostiraletan irekita egoten da, 18:00etatik 20:30era. Aholkularitzara joan aurretik Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoan eskatu behar da hitzordua. Plaza Berrian dago, udaletxean bertan.